



Hezkuntza-komunitate osoari zuzendua. Irakasleak, familiak eta ikasleak.

Web: <https://www.betirako.org/>

Kontaktua: betirako@betirako.org

BETIRAKO zerbitzuak, prestakuntza eta sentsibilizazio saioen bidez, dolua, bizi-hausturak eta galerak hurbilduko dizkio hezkuntza komunitateari. Ikastetxeetan gerta daitezkeen dolu-prozesuak ezagutaraztea du helburu, baita galerarekin lotutako erantzun emozionalen ulermena sustatzea eta, dolua, eskola-eremuan, modu osasungarrian laguntzeko, adierazteko eta lantzeko tresnak eskaintzea ere.

Dolua ikuspegi zabaletik lantzen da; hortaz, hainbat galera-esperientzia hartzen dira aintzat, hala nola heriotzagatiko galerak, loturen hausturak, gurasoen banantzea, migrazio-dolua, besteak beste.

Jarduteko modua

4 tailer mota:

- Irakasleentzako prestakuntza

Ordu 2ko iraupena duten aurrez aurreko saio 2.

- Gainbegiratzea eta laguntzea

Laguntza profesionalerako gunea, egoera zehatzei aurre egitera bideratua, kudeatzeko tresna espezifikoak eskainiz. Ingurune horrek irakasleen lasaitze emozionala errazten du,

eta traumarekiko sentikorra den ikastetxea diseinatzen eta eraikitzen laguntzen du.

- Familientzako prestakuntza

Ordu eta erdiko iraupena duten aurrez aurreko saio 2.

- Ikasleentzako prestakuntza

Ordu beteko iraupena duten aurrez aurreko saio 2